

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2023ko apirila

Ostatu-gauen kopuruak % 6,0 egin du gora Euskal AEko landetxeetan eta % 28,4 apartamentu turistikoetan, 2023ko apirilean

Aterpetxe turistikoek ere % 29,4ko igoera izan dute ostatu-gauetan

Euskal AEko landetxeetan, 2023ko apirilean, sarrera kopurua % 2,9 hazi da, aurreko urteko hilabete beraren aldean, eta ostatu-gauen kopurua, % 6,0. Urte arteko hazkuntza horiek kontuan hartuta, 15.526 sarrera izan dira eta 38.659 ostatu-gau joan den apirilean.

Euskal AEko landa-ostatu-etako sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Apirila 2023

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazzen arabera		gelaka	
	2023/04	m/m-12 (%)	2023/04	m/m-12 (%)	2023/04	2022/04	2023/04	p.p. *	2023/04	p.p. *
EUSKAL AE	15.526	2,9	38.659	6,0	2,49	2,42	29,4	2,1	32,9	1,7
Estatukoak	12.227	-6,0	32.186	2,3	2,63	2,42	-	-	-	-
Atzerriarrak	3.299	58,1	6.473	29,2	1,96	2,40	-	-	-	-
Araba/Álava	2.854	2,3	7.299	15,9	2,56	2,26	21,7	2,0	23,3	0,7
Estatukoak	2.560	-1,8	6.736	11,2	2,63	2,32	-	-	-	-
Atzerriarrak	294	58,9	563	135,6	1,91	1,29	-	-	-	-
Bizkaia	4.463	6,7	10.711	18,0	2,40	2,17	27,8	3,7	30,8	2,7
Estatukoak	3.310	-12,3	8.535	15,2	2,58	1,96	-	-	-	-
Atzerriarrak	1.153	183,3	2.176	30,1	1,89	4,11	-	-	-	-
Gipuzkoa	8.209	1,1	20.649	-2,2	2,52	2,60	34,9	1,8	39,8	2,5
Estatukoak	6.357	-4,1	16.915	-6,1	2,66	2,72	-	-	-	-
Atzerriarrak	1.852	24,0	3.734	20,5	2,02	2,07	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Maiatzaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko apirilarekin alderatuta % 58,1 hazi ondoren, atzerriko jatorria duten sarrerak 2023ko apirilean Euskal AEko landetxeetan izan diren sarreraren guztizkoaren % 21,2 izan dira. Ostatu-gauen kasuan, aldi berean, atzerriko jatorrikoak guztizkoaren % 16,7 izan dira; % 29,2ko hazkuntza izan dute 2022ko apirilaren aldean.

Lurralde historikoaren arabera, sarreretan, urte arteko igoerak % 6,7koak izan dira Bizkaian, % 2,3koak Araban eta % 1,1ekoak Gipuzkoan, 2023ko apirilean. Ostatu-gauei dagokienez, % 15,9ko eta % 18,0ko hazkuntza izan da Araban eta Bizkaian, hurrenez hurren, eta, Gipuzkoan, berriz, % 2,2ko beherakada.

Euskal AEn mota horretako establezimenduetako batez besteko egonaldia 2,49 egunekoa izan da apirilean, 2022ko hil berean izan zen batez besteko egonaldia (2,42 egun) baino altuagoa. Batez besteko egonaldia bidaiariak gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn egiten duten egonaldi osoari.

Plazen eta gelen okupazio-mailek urte arteko hazkuntza izan dute: ehuneko 2,1 eta 1,7 puntu, hurrenez hurren; plazen arabera, % 29,4 eta gelen arabera, % 32,9.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2023ko apirilean, 16.404 sarrera izan dira, eta 54.794 ostatu-gau. Aurreko urteko apirilarekin alderatuta, % 43,5eko hazkuntza izan da sarreretan, eta % 28,4koa, ostatu-gauetan.

Apartamentu turistiko esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatearekin kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten bidez eskainitako ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe horren barruan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak**, turismo-motiboengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Sarrerak, gauraldiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Apirila 2023

	Sarrerak		Gauraldiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2023/04	m/m-12 (%)	2023/04	m/m-12 (%)	2023/04	2022/04	2023/04	p.p. *	2023/04	p.p. *
EUSKAL AE	16.404	43,5	54.794	28,4	3,34	3,74	40,2	3,1	64,5	-4,8
Estatukoak	11.073	35,1	35.967	21,9	3,25	3,60	-	-	-	-
Atzeritarrak	5.332	64,7	18.826	42,9	3,53	4,07	-	-	-	-
Araba/Álava	1.803	51,9	7.940	3,4	4,40	6,47	24,7	1,0	57,2	-13,1
Estatukoak	1.657	53,5	6.285	2,8	3,79	5,66	-	-	-	-
Atzeritarrak	146	35,8	1.655	5,8	11,33	14,55	-	-	-	-
Bizkaia	10.338	43,2	24.387	50,4	2,36	2,25	44,0	5,8	51,6	-6,2
Estatukoak	6.685	36,6	14.998	42,1	2,24	2,16	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.653	57,0	9.389	65,8	2,57	2,43	-	-	-	-
Gipuzkoa	4.264	41,0	22.467	19,5	5,27	6,21	46,1	-0,6	79,1	3,2
Estatukoak	2.731	22,9	14.684	14,3	5,38	5,78	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.533	90,9	7.782	30,9	5,08	7,41	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Maiatzaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarreren guztizkoaren % 32,5 eta ostatu-gauen guztizkoaren % 34,4 atzerriko jatorriko bisitariak dagozkie; 2023ko apirilean % 64,7ko eta % 42,9ko urte arteko hazkuntzak izan dituzte, hurrenez hurren.

Apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia 3,34 egunekoa izan da 2023ko apirilean, 2022ko apirilean baino baxuagoa, orduan 3,74 egunekoa izan baitzen Euskal AEn. Gipuzkoan, establezimendu-mota horretako batez besteko egonaldia 5,27 egunekoa izan da, 4,40 egunekoa Araban eta 2,36 egunekoa Bizkaian.

Euskal AE mailan, plazen araberako okupazio-maila % 40,2koa izan da; 2022ko apirilaren aldean, ehuneko 3,1 puntu handiagoa. Apartamentuen araberako okupazio-maila, berriz, ehuneko 4,7 puntu baxuagoa izan da, eta % 64,5koa izan da.

Euskal AEko **aterpetxe turistiko**ei dagokienez, 2023ko apirilean, sarreretan % 35,8ko urte arteko hazkuntza izan da; 23.639 izan dira guztira, eta 40.245 ostatu-gau. Bizkaian, 23.418 ostatu-gau erregistratu dira; Gipuzkoan, 15.701, eta, azkenik, Araban, 1.127.

Egonaldiaren batez besteko iraupena ostatu-mota horretan 1,70 egunekoa izan da 2023ko apirilean, Euskal AE osoan, eta plazen araberako okupazio-maila, ehuneko 6 punturen urte arteko hazkuntza kontuan hartuta, % 40,5koa.

2023ko Aste Santuko balantzea

Landetxeetan, Aste Santuan, ostegun eta igande artean (4 gau), sarrera kopuruak % 9,6 egin du behera, eta ostatu-gauen kopuruak % 3,6, Euskal AEn.

Lurralde historikoaren mailan, Araban jaitsi egin da bai sarrera kopurua bai ostatu-gauen kopurua (% 49,5koa eta % 11,7koa izan dira, hurrenez hurren); Bizkaian, % 17,2 egin du behera 2022ko Aste Santuan izan ziren sarreraren kopuruen aldean, baina % 5,6 gora ostatu-gauetan, eta, Gipuzkoan, azkenik, sarrera kopuruak % 18,2 egin du gora, eta ostatu-gauen kopuruak % 4,8 behera.

Euskal AEko landetxeetako sarrerak, gaualdiak eta okupazio-mailak. Aste Santua (*). 2023

	Sarrerak		Gaualdiak		Okupazio-mailak			
					plazen arabera		gelaka	
	2023	2023 / 2022	2023	2023 / 2022	2023	p.p. *	2023	p.p. *
EUSKAL AE	3.254	-9,6	11.762	-3,6	65,3	-0,7	66,5	-3,1
Estatukoak	2.761	-14,2	10.669	-4,7	-	-	-	-
atzerriarrak	493	28,7	1.093	9,0	-	-	-	-
ARABA/ALAVA	420	-49,5	2.387	-11,7	51,2	-11,4	50,6	-15,6
BIZKAIA	1.029	-17,2	3.367	5,6	64,2	3,9	62,2	-2,9
GIPUZKOA	1.805	18,2	6.008	-4,8	74,2	3,2	78,5	4,2

(*)Aste Santua: Ostegunetik igandera (4 gau).

p.p.*= aurreko urteko hila bete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Data 2023ko Maiatzaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEn, 2023ko Aste Santuan, plazen araberako okupazio-maila % 65,3koa izan da eta gelen araberakoa, % 66,5koa. Zifra horiek, aurreko urteko zifrak baino ehuneko 0,7 eta 3,1 puntu baxuagoak dira, hurrenez hurren.

Apartamentu turistikoaren kasuan, 2022ko Aste Santuaren aldean izan diren urte arteko aldakuntzak positiboak izan dira bi kasuetan: % 34,3 eta % 25,0 sarrera eta ostatu-gau gehiago, hurrenez hurren.

Lurralde historikoari dagokionez, sarrera kopurua % 32,3 handiagoa izan da Araban, % 34,5 handiagoa Bizkaian eta % 34,9 handiagoa Gipuzkoan, horiek guztiak 2022ko Aste Santuarekin alderatuta. Ostatu-gauen kasuan, bestalde, % 9,9ko, % 33ko eta % 23,2ko hazkuntzak izan dira, hurrenkera horretan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gualdiak eta okupazio-mailak. Aste Santua (*). 2023

	Sarrerak		Gualdiak		Okupazio-mailak			
					plazen arabera		apartamenduka	
	2023	2023 / 2022	2023	2023 / 2022	2023	p.p. *	2023	p.p. *
EUSKAL AE	2.991	34,3	10.629	25,0	58,3	3,3	79,3	-5,3
Estatukoak	2.267	34,4	8.080	24,7	-	-	-	-
atzeritarrak	724	34,1	2.549	26,1	-	-	-	-
ARABA/ALAVA	384	32,3	1.676	9,9	39,1	3,7	73,3	-9,3
BIZKAIA	1.833	34,5	4.837	33,0	65,3	1,5	68,8	-14,6
GIPUZKOA	774	34,9	4.116	23,2	63,1	1,9	91,3	5,1

(*)Aste Santua: Ostegunetik igandera (4 gau).

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Data 2023ko Maiatzaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Okupazio-mailak % 58,3koak izan dira, plazen arabera neurtuta, eta % 79,3koak, apartamentuen arabera neurtuta. Ehuneko puntuetan, 3,3 puntuko hazkuntza izan da plazen kasuan, eta 5,3 puntuko beherakada, apartamentuen kasuan, 2022ko Aste Santuarekin alderatuta.

Informazio-oharra

Establezimendu turistiko hartzaileen inkestaren erantzun-tasa % **95,4koa** izan da Landetxeen kasuan, % **80,7koa** Apartamentu Turistikoen kasuan eta % **81,9koa** Aterpetxe turistikoaren kasuan. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei, egindako ahaleginagatik.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa Zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62